

## OLERTI EGUNA

1985 urtea, 26'garren ospakizuna. Betiko zerekin, eta zer barri bategaz aurretiko urteetan sariak diru gitxikoak izaten ziran; aurten, ostera, naizta beste etheen sari oparotsurik ez izan, zerbait banatu dogu. Ta au be pozgarri ta akulu izan oi da idazlariarentzat.

Besteak beste, sariketari loturik, epai-lana aurreko urte bietan sarituak izan ziran euskal olerkari bik osotu eben: Bidaguren gernikarrak eta Erkiaga lekeitiarrak. Zein ete zan lan ori? Artu genduzan olerki bakotxari balio-puntuak jarrea. Eta lirika saillean «Bizialdi urrun bat gogoratuz»-ek lortu zintun 7 puntu; poema saillean, «Olatuaren gandorrean» len-saria ta Bertso-saillean «Ekaizpeko arraunlaria». Edegi genduzan idazki-azal txikiak, danen aurrean beti lez, sariak emoterakoan, eta leenengoaren egille Sabin Muniategi izan zan, bigarrenarena Gotzon Egaña ta irugarrenarena Agustin Beloki.

Bakotxak irakurri eban ondoren bere lana, txalo beroak arturik. Baiña etzan izan txaloak jotea eta sariak jazotea bakarrik; orren ondoren, gure artean oitura danetz, olerki-gunari eta inguruari ekin geuntson, bero-bero ta sakonki. Urtero agertu izan dira ikuspegi jakingarri ta eritxi mordoak, oso interesanteak ain zuzen. Poesiari ta ederrari buruz bakotzak ekiana adierazo eban batzar akademiku orretan, eta nok esan au jakingarri ez danik?

Alkar-izketa onetan ordu ta erdi bat luzatu ostein, igaz erabagita geunkan legez, Arrese-Beitia'ri opatu geuntson geure olerkari-omena; A. Onaindia'ren itzaldia ta otxandioar neurtizlari bipillaren poesi batzuk irakurtzea, «Ama cuskeriaren azken agurrak», «Bizi da ama cusкера» ta abar. Dana amaitu ondoren, bazkari guria. Eta oar au: Olerki ospakizuna, igaz, urrilaren 12'ra aldatu genduan arren, egunik onena guretzat, eta onezkero 26 urtetan oitura egiña, illebetz ta egun orretan, ots, azaroan eta Kristo Erregearen igandean, ospatuko dogula aurrerantzean be.